

Gure gogamena aldatzea

*Tim Jackins, Judu Erakusleen Nazioarteko Batzarra,
Bryn Mawr-en, Pensilvanian, AEB, 2015eko ekainean*

Borroka batera bueltatu nahi dut, baina horra bakarrik joatea zaila da. Gure joera banaka borrokatzekoa da, eta hau ez da banakako borroka, guztioi gertatutako zerbaiti buruzkoa baizik.

Elkar entzutean denbora luzea eman duzue, zuetako batzuk *oooso* luzea (*barre-algara*). Elkarri entzutea ulertu eta ondo erabiltzen duzue. Badakizue zenbat aldaketa egin dituzuen zuen bizitzan. Ez dirudi zuetako asko bidean galduko denik. Horrenbestera ber-suberma gaitzke, baina gure onera etortzeko gero eta denbora gutxiago behar ohi dugu egun (*barre-algara*).

Gauza asko aldatu ditugu, eta oraindik borroka goiztiar batzuek iraun dira. Elkar ikusten dugun bakoitzean, itxura hobea daukagu, hala ere, modu batera, itxura berari eusten diogu. Landu ahal izan ditugun gauzak aldatu egiten dira, eta lantzeko modurik edo lantzeko bitartekorik eduki ez ditugun gauzak ez dira aldatzen.

Estutasunak nahasgarriak dira. Zenbat eta baliabide gehiago eduki eskura, are eta azkarrago etortzen gara gure onera. Hori da erkidegoa eraikitzeko arrazoi garrantzitsuetako bat, horrek estutasunetatik salburik edukitzen baikaitu.

Gure etsipen zaharrak zaildu egiten du aurrez landugabeko gauzetan lan egitea, gogorrago mindu gintuzten tokietan lan egitea. Bakarrago eta ahalgeago geunden denbora goiztiar hartan, eta min haietan ezintasun sentimenduak astunak ziren. Hantxe eman genuen amore eta erabaki genuen, hain zuzen, geure kabuz aritzea eta aurki genezakeen modurik onenean bizitzen jarraitzea. Ez zen bizitza borobil hura, txikitan amesten genuena, baina, behintzat, jasangarriago bilakatzen zuen.

Gure ikuspegia nahastu egin da. Hori ikusten da gertaera goiztiar astunekin lan egitea aipatzen dugunean; ia ez dugu gogorik izaten. Iruditzen zaigu berriro ere porrot egingo dugula, eta orduantxe uzten diogu saiatzeari. Zaila da ikuspegiari eustea –asaskatu ezinik– erabateko porrota izan genuen lekuetan. Sekula ondo atera ez zaizkizun gauzak egiteko eskatzen ari natzaizu, eta horrelako zerbait da burutik pasatzen zaiguna: “Nik hori behin eta berriz egin dut, eta inoiz ez zait ondo atera; egurra jaso dut, eta *zer* eskatzen zabilta? Horixe bera egiteko? Esan egiten duzu ongi aterako dela, baina ez da inoiz ere ondo atera!”

Gauza horiek guztiak egiak dira (*barre-algara*). Egiak dira zehatz-mehatz. Aipatzen ari natzaizuen ahalegina, ordea, orain gauzak ezberdinak diren ideian egon behar da oinarritua.

Ahalegin hori ezin badugu egin, gure ikuspegiak eta elkarren arteko entzuteak “erreformistak” izaten jarraituko dute. Ez da gure asmoa, baina azkenean konformatzen gara gauzak hobeto eta jasangarriago izatearekin, besterik gabe. Behar-beharrezkoak izango diren aldaketa handiak ez ditugu egiten ez pertsonal mailan ezta hortik haratago ere. Nire iritziz borroka goiztiar horiei ez heltzea da geldiarazten gaituena.

Ertzak leuntzen lan egiten dugu. Estutasunak zertxobait ulergarriagoak bilakatzen ditugu. Orduan, beste urrats bat ematen dugu. Hala ere, uneren batean hori baino zerbait gehiago beharko da. Gizartea gainbera doa. (Jendeak presa zuen gizartea eror zedin, eta euren bizialdian izan zedila nahi zuen; baina orain beldur da hori gertatuko dela eta ez dela pentsatzeko gai izango). Izugarritzko aldaketa baterantz goaz; eta ondo pentsatu eta ondo funtzionatuko badugu, aurre egin beharra

daukagu borroka goiztiar handi batzuei. Erabaki beharra daukagu egoera gure esku egon daitekeela oraindik, ez du axola iraganean zer gertatu zen, zein kaltegarria edo gogorra izan zen, ezta nola sentitzen garen ere.

Gauza jasanezinei aurre egiten ikasi behar dugu, eta ikusi jasanezinak ote diren benetan. Oraindik ez dakigu hori nola egin. Norbaitek jakingo du, eta uste dut EBlariok inork baino aukera hobea daukagula.

Hau bai aukera! Benetan esan nahi dut aukera paregabea dela. Gure aurretik inork ez du aukerarik izan bizitzaren gogorra gainditzeko. Hori egiteko aukera daukagu eta, ondoren, jendeari laguntzeko horretan. Baina horrek zure gogamena eskatzen du; erabakia eskatzen du. Zure gogamena *aldatzea*. Nolabait erabakia hartzetik ezberdina da.

Lehenengo zatiak aipu egiten die geure iraganean, gure familiaren iraganean eta gure jendearen iraganean aurre ezin izan genien gauzei. Ezin gara aurrera egoki joan mundua aldatzera, gauza horiei aurre egiten ez diegun bitartean. Aurrerapen ona egin dugu, eta horrek ematen digu gauzak oso bestela egiteko aukera.

Hondamendi-teoria izeneko adar bat badago matematikan. Ondorengo da horren jatorria: gauzak pixkanaka aldatu, poliki-poliki okertu eta gero hautsi egiten dira. Aldaketa guztia ez da izaten prozesu jarraitua, badira bat bateko gertaerak. Hara! Eta bat-batean, munduari buruz daukagun irudia aldatu egiten da. Pixkanakako aldaketekin ondo moldatu garela esango nuke. Hori da egiten jakin izan duguna. Gure oinarriak eta harremanak hobetu ditugu. Baina, behar bada, ez dugu gauza bera egingo beti. Egon daiteke bat-bateko hausturarik. Ausart al gaitzke hori egia den ikusten? Iritziz alda al dezakegu? Ez al du axolarik gertatu zaigunak, ez al du axolarik iraganak? Gogamenak zurea izaten jarraitzen du. Oraindik badira aukerak.

Txikitan zerk geraraziko zintuen? Ez zenuen nahi zu ezerk gerarazterik. Haurra zinenean ez zenuen uste ezerk geldi zintzakeenik, helduek geldiarazi arte (*barre-algara*). Nire ustez denok espero genuen hala jokatzeko gai izango ginela hausturaren aurrean. Gure itxaropena zen, egoera nahiko argia izan balitz, erreakzionatu ahal izango genuela. Gutako gehienok edozer gauza egingo genuke gure seme-alabak edo bilobak arriskuan egongo balira, emaitza haintzat hartu gabe. Axola duena zu mugitzea da, emaitzak haintzat hartu gabe. Zu mugitzeak axola du, itxarroteak ez.

Ez litzateke polita izango egunero altxatzeko motibo bat edukitzea eta horri tinko eustea, emaitza zernahi delarik? Gutxienez jakitea saiatu zarela eta ondoren egiaztatu zer gertatu den? Nik uste dut hori izan behar dela langai zahar haienganako eduki behar dugun jarrera; hau da, etsipenaren etsipenez asaskatzen saiatzeari utzi genion langai haiekikoa, hain zuzen ere. Handik itzultzeko garaia da. Etsita geunden. Hori guzti hori ondo dago. Ez gintuen hil. Ondo dago etsipenak kolpatu izana. Baina ez dago ondo horrek guri betiko eragitea, ahultzea, itxaroten uztea, borroka goiztiarrak saihesten uztea, borroka berriak libratu ezinik gelditzea.

Gure gogamenean aldaketa bat egin beharra dago. Ez dakit nola eginarazi zuri hori. Eginarazi nahi dizut. Baina are gehiago, nahiko nuke zuk erabakitzea egin nahi duzula, eta, ondoren, egin egitea. Nire beldurrek eta ezinegonak naramate zuri hori eginaraztera. Ustez dut ez duzula egingo, baina hori nire estutasunaren zati da. Uste dut aukerarik ez duzula izango. Milioika pertsonak ez dute sekula aukerarik izan. Nola ziurta nezake aukera izango duzula?

Nola sartuko dizut buruan ziur nagoela hori egingarria dela? Ez dakit lortuko dudan. Ez dit gehiegi axola lortuko dudan ere. (*Tim barrez*) Axola dit norbaitek egitea. Axola dit aurrera egin

dezagun. Ni neu baldin banaiz pertsona hori, ondo dago. Ni naiz eskarmentu gehien daukana, beraz, burubelarri ari naiz horretan. Baina hobeto izango litzateke gutako hamar mila izango bagina batera. Badakit azkarrago eta gehiago mugitzen garela elkarrekin joanda, gutako edonor bakarrik joanda baino. Gauzak aldatzen gogor saiatzen ari den bakarra ez zarela jakiteak, ikuspegia ederki alda diezazuke. Hori da esan eta erakuts diezazukedan guztia. Ekiozu. Ikus dezagun zer egin dezakegun.

Gauza berriak garatzen ari dira munduan etengabe. Giza-gogamenak gero eta irtenbide gehiago aurkitzen ari dira. Alde batetik, zoragarria da. Bestetik, estutasunei botere gehiago ematen diete luze-zabal jokatuak izan daitezen. Gizakiok ez gaude orain dela hiru mende baino okerrago, baina orduan ezin genuen suntsitu ingurunea. Orain bai.

Beraz, gauzak garatzen ari dira, eta guk elkar daukagu: estutasunen hodeian zehar borrokatzen. Horrek guztiak puntu baterantz garamatza. (*Tim barrez*) Nor iritsiko da lehenengo (*barre-algara*) nahiko adimenarekin, zer egiteko? Ikusiko dugu. Ikus dezagun.

Hori egin dezakegu, kontua da zein azkar eta zein tinko. Nire eskarmentuaren arabera dena hobeto joaten da taldean, norbaitek gauzak argi eta garbi azalduz, eta, ondoren, denak batera saiatuz. Zenbat eta luzeagoa izan pausaldia, orduan eta arrakasta gutxiago izango dugu. Etsi egiten dugu elkarrengandik banatzen garenean, gure borroka ikusten ez ditugunean; aukera handiak hartzera auspotzen gaituzten ahotsak entzuten ez ditugunean.

Ez ditugu beti egoera egokiak izango, eta ez ditugunean, gure saioen irismena murriztu egiten da. Ez bota errua zeure buruari. Baliabideak behar dira hori gerta dadin. Zerikusia dauka inguratzen gaituzten baldintzekin. Beraz, laukoteak osatu eta begirada bat bota iezaiozue horri.